Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

(5)

# ALKATETZAREN 1080 ZK.KO EBAZPENA
# RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA N.º 1080
**(Testua/Texto: 2020CORP0022)**

**Gaia:** 2020CORP0022 espedientea, "2021 urteko jaiegunak deklaratzea Irunen TAO aparkalekuak arautzeko ondorioetarako".

**Egitateak:**

- Urte osoan, badira egunak ezaugarri bereziak dituztenak, hala nola, Eguberriak, Aste Santua eta Zaindariaren jaiak, eta egun horietan, zaila izaten da TAO guneak erregulatzea.

- Bestalde, 7, 10 eta 11 TAO guneetan, dauzkaten erregulazioko ezaugarriak direla eta, asteko egun guztiak hartzen baitituzte, igandeak eta jaiegunak barne, kasuistika hori areagotu egiten da.

- Egun hauek, gatazkatsuak izan ohi dira, Trafiko eta Aparkamenduen Ordenantza (TAO) aplikatzeari dagokionez, hiritarrek jaiegun gisa hartzen baitituzte.

**Argudioak:**

- Trafiko eta Aparkamenduen udal Ordenantzako (TAO) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetza-Lehendakaritzari ematen zaio ahalmena Ordenantza hori aplikatzeko egunak, orduak eta guneak aldatzeko; gero, Udalbatzari jakinarazi beharko dio.

- TAO emakida arautzen duen Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguak, 6. klausulan, 1. atalean, ezartzen du Udalak beretzat gordetzen duela obrak, jaiak, ekintza publikoak, kultur zein kirol ekintzak edo udalaren intereseko beste batzuk direla-eta behar diren plaza horiek aipatutako ekintzak burutzeko gutxienez behar denboran aldi baterako bertan behera uzteko ahalmena. Horrek ez du inolako kalte-ordainik eragingo.

**EBATZI DUT**

*1.- Honako egun hauek udalerri osoan jaiegun deklaratzea, TAO aparkalekuak arautzearen ondorioetarako, 7 eta 11 guneetarako (Behobia) eta 10 generako (Santiagoko Merkataritza Gunea) izan ezik:*

- *Apirilak 3a, larunbat Santua, egun osoa.*
- *Ekainaren 29a, (asteartea) San Pedro eguna, egun osoa.*

**En relación con el** expediente 2020CORP0022 Declaración de festivos a efectos de regulación de estacionamiento OTA en Irun correspondientes al año 2021".

**Resultando los siguientes hechos:**

- Que durante el año hay días que por sus características especiales, como Navidades, Semana Santa y durante las fiestas Patronales, hacen difícil la regulación de las diferentes zonas OTA.

- Que, por otra parte, en las zonas OTA 7, 10 y 11, por sus características de regulación que incluyen todos los días de la semana incluyendo los domingos y festivos, se agrava esta casuística.

- Que estos días suelen ser conflictivos respecto a la aplicación de la Ordenanza de Tráfico y Aparcamiento (OTA), por la consideración que tienen entre la ciudadanía como días festivos.

**Considerando los siguientes argumentos:**

- Que de conformidad con lo dispuesto en el art. 4 de la Ordenanza municipal de Tráfico y Aparcamiento (OTA), se confiere a la Alcaldía-Presidencia facultad para modificar los días, horas y zonas de aplicación de dicha Ordenanza, dando cuenta de ello, con posterioridad, al Pleno Municipal.

- Que el Pliego de Condiciones Económico-Administrativas que rige la concesión de la OTA, en su cláusula 6.ª, apartado 1, establece que el Ayuntamiento se reserva la facultad de suspender temporalmente por motivos de obras, fiestas, actos públicos, culturales o deportivos, u otros de interés municipal, aquellas plazas necesarias durante el tiempo mínimo necesario para la realización de dichas actividades, lo que no generará derecho a indemnización alguna.

**HE RESUELTO**

*1.º- Declarar festivos a efectos de regulación de estacionamiento OTA, en todo el municipio, excepto para las zonas 7 y 11 (Behobia) y 10 (Zona Comercial de Santiago), los siguientes días:*

- *3 de abril, sábado Santo, durante todo el día.*
- *29 de junio, (martes) día de San Pedro, durante todo el día.*

- Abenduaren 24a eta 31(ostirala) 15:30etatik aurrera.

Hori guztia, Trafikoko eta Aparkamenduen Udal Ordenantzako 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta emakida arautzen duen Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguko 6. klausula, 1. atala aplikatuz.

2.- Honako egun hauek jaiegun deklaratzea, TAO aparkalekuak arautzearen ondorioetarako, 7 eta 11 guneetan (Behobia) eta 10 gunean (Santiagoko Merkataritza Gunea):

- Urtarrilaren 1a, egun osoa. (ostirala)
- Ekainaren 29(asteartea), San Pedro eguna, 15:00etatik aurrera
- Ekainaren 30a, egun osoa. (asteazkena)
- Abenduaren 25a, egun osoa. (larunbata)
- Abenduaren 24a eta 31 (ostirala), 15:00etatik aurrera.

Hori guztia, Trafikoko eta Aparkamenduen Udal Ordenantzako 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta emakida arautzen duen Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguko 6. klausula, 1. atala aplikatuz.

3.- Erabaki hau GAOn argitaratzea.

4.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzari, hurrengo bilkuran.

Honako ebazpen honek administrazio–bidea agortzen du. Honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jar dezakezu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo bestela, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian zuzenean inpugnatu, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, egoki irizten den beste edozein aurkeztetik at.

- 24 y 31(viernes) de diciembre, a partir de las 15:30 horas.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el art. 4 de la Ordenanza Municipal de Tráfico y Aparcamiento (OTA) y en aplicación de la cláusula 6.ª, apartado 1, del Pliego de Condiciones Económico-Administrativas que rige la concesión.

2.º- Declarar festivos a efectos de regulación de estacionamiento OTA, en las zonas 7 y 11 (Behobia) y en la zona 10 (Zona Comercial de Santiago), los siguientes días:

- 1 de enero, durante todo el día. (viernes)
- 29 de junio(martes), día de San Pedro, a partir de las 15:00 horas.
- 30 de junio, durante todo el día. (miércoles)
- 25 de diciembre, durante todo el día. (sábado)
- 24 y 31 de diciembre (ostirala), a partir de las 15:00 horas.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el art. 4 de la Ordenanza Municipal de Tráfico y Aparcamiento (OTA) y en aplicación de la cláusula 6.ª, apartado 1, del Pliego de Condiciones Económico-Administrativas que rige la concesión.

3.º- Dar publicidad a la presente resolución en el BOG.

4.º- Dar cuenta de la presente Resolución al Pleno de la Corporación en la primera sesión que se celebre.

La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Irun, 2020ko Azaroaren 6

ALKATEA / EL ALCALDE,

Nire aurrean, / Ante mí,
IDAZKARIA / LA SECRETARÍA,

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN